


# IGARTUBEITI BASERRI MUSEOA



## IGARTUBIZIA ... MARI JOSE TORRECILLAren ESKUTIK

Mari Jose Torrecillak, historialariak, arkeologoak eta Boinas La Encartada Museoko teknikariak, Igartubeiti baserriko esku-hartze arkeologikoa zuzendu zuen.

**Baserrri batean burutzen zenuen lehen esku-hartzea izan zen?**

Bai, izan ere, baserrri baten barruan zuzenean esku hartzen zen lehen aldia izan zen; hau da, baserrria ikerketa arkeologiko gisa proposatzen zen lehen aldia zen.

**Igartubeitin baserrien arkeologia burutu da. Lehendik ezezaguna zen gai hau?**

Neurri batean bai ezezaguna zen. Iñaki García Camino bezalako ikerlariak zenbait baserrikerdi aroko gelarekin erlazionatutako aurreko ebidentziak zituztela aditzera eman arren, Igartubeitiko hasierako miaketa XVI eta XVII. mendeetako baserriaren izaerari buruzko kontuak zehaztean oinarritu zen. Ez dut uste orientazio gai gisa "baserrien arkeologia" existitzen denik, Igartubeitik hasiera eman zien baserrietako esku-hartzeak gure ingurunean gero eta arruntagoa den joera batekin bat egin zuela. Joera honek metodoak, arkeologi diziplinak, bere kronologia esplizitua edonolokoa dela ere, kultura materialeko elementuen ikerketan eta

ezagutzan zeresan handia duela defendatzen du.



Lurpean barneratuta dagoen Erdi Aroko etxolagunearen neurriak, eraikinaren ekialdeko alboan ixten zuten zutabeen kokapenarekin.

**Ze garrantzia du Igartubeitin garatutako esku-hartzeak? Eta etxolagunearen aurkikuntzak? Azken aurkikuntza honi dagokionez, Igartubeitiren kasuan berezia da? Zergaitik?**

Beno, Igartubeitiko esku-hartzea Manuel Izagirrek eta Alberto Santanak burututako ikerketatik sortzen da. Beraz, nire zeregina lehendik zegoen lan talde bati gehitzen zaion tekniko espezializatu batena izan zen. Esku-hartze arkeologikoa ez zen hasiera

batean protagonista, egitasmoaren eragileek beraien ikerketen kezka zehatzei irtenbidea aurkitzeko proposatutako bitartekoa zen. Beraz, lehen momentuan niretzat Igartubeiti toki bitxi batean lagunekin izandako lankidetzat atsegin bat zen. Proposatu zizkidaten helburuak baserriaren bilakaera historikoaren ebidentzia berezien jatorria jakitean oinarritzen ziren: handitzearen eta habe dolarearen arrastoak eta zehazki, dolarearen ardatzak izan zezakeen kontrapisua. Dakizuen bezala, zentzu honetan miatu beharreko guneak kontrapisuaren arrastoak aurkitzeko bi arazo izan zituen: bata, orain dela gutxikoa, baserri garaikidearen hobi septiko txikia eta bestea, zaharragoa, beheratze artifizialaren arrastoa, geroago etxolagune gisa identifikatu genuena. Proposatu genituen galderei dagokionez etsigarriak ziren lehen aztarnak esku-hartzea berriz planteatzeko garaian ezinbestekoak izan ziren eta asmo handiko helburua ezarri genuen: baserriko "hustuketa" arkeologikoa, eskaini zezakeen zenbait eta informazio garrantzitsuagoa berreskuratzeko.


### **Zeintzuk dira Igartubeitiko arkeologi aurkikuntzak?**

Igartubeitiko arkeologi ekarpena bere aurkikuntza garaian garantiza izan zuen, eta zalantzarik gabe, ondoren burututako ikerketak bertan lortutako emaitzen ondorioa dira. Neurri batean bertan topatutako erdi aroko etxolaguneak, baserrien garapenaren aurretik, Euskal Herriko eraikuntza motek zuten hutsune bat bete du. Ondoren kronologia eta izaera bereko beste eredu batzuen ikerketa ahalbideratu du. Horrez gain, kasu honetan arkeologiak berretsi duena izan da gaur egungo historiako elementuetarako ikerketa baliabide gisa duen ahalmena: lehenik Igartubeitiko baserriaren aurreko iraganaz jabetzea ahalbideratu duelako eta bigarrenik, baserriaren oinetxearen bilakaerari buruz egin duen ekarpen zehatzagatik: logelen eta ganaduarentzako

espazioen barne banaketa, handitzearen eredia, denboran zehar burututako aldaketak eta abar.

### **Zergaitik erabaki zen baserria induskatzea?**

Funtsean, lehen esan bezala, baserriaren bilakaera arkitektonikoan zenbait behaketa eta teoria osatzeko baliabide gisa. Lehen emaitzak Portu ondoren, joera aldatu zen eta oinetxearen miaketa guztiz amaitzea erabaki genuen ahalik eta aztarnarik edo daturik gehien berreskuratzeko.



Ohe batez ezkutaturik eta lurreko oholen azpian zulo bat dago, eta bertan etxeko gauzarik baliotsuenetako batzuk gordetzeko zurezko bi kutxa.

### **Logeletako batean zulo bat topatu zenuten. Kontatu dezakezu nola, zer zegoen barruan, data...**

Lurrean oholta duen logela horretan 80 zm.tako sakonera duen zulo bat topatu genuen. Miaketan lau angeluko hatzak topatu genituen, harlauza lauekin markatutakoak. XX. mende hasierako zenbait txanpon ere azaldu ziren, fruitu lehorren zenbait oskol. Kutxa bat edo bi kokatzeko zulo bat, non uztaren zati bat edo diru baliabideak ezkutetzen ziren. Agintariengatik ezkutatzeko, gerra garaian ezkutatzeko baita baserriko produktuen garestitzean ezkutatzeko ere balio zuela, XIX. mendean eraiki zela eta espainiar Guda Zibilaren ondorengo urteetan erabili zela uste dugu.

## **Igartubeitiko esku-hartzea zuzendu zenuen garaiko bitxikeriarik gogoratzen al duzu?**

Lagun giroan lan egiten duzunean asko eta ni bezala erdalduna zarenean eta erabat euskalduna den landa eremuan lan egin behar duzunean gehiago. Nik bi arlo nabarmenduko nituzke. Lehena, baserriaren barneko eta aurreko atariaren indusketa burututa, dolarearen bernia nagusi baten azpiko gunee bat miatu gabe utzi genuen baserria guztiz desmontatua zegoenerako. Neguko egun hotz eta euritsu batean itzuli nintzenean bihotzondokoa izan nuen baserria “desagertua” zegoen, dena desmontatua zegoen eta berreraikitzen ari zituzten alboko horak ia ez ziren mantentzen. Ezinezkoa iruditzen zitzaidan egur eta ohol “puzlea” berreraikiko zutenik.

Bigarrenik, zaharberritzea amaitzen ari zela lan taldearen bilera batera joan nintzen sukalde inguruko lurrei buruz hitzegitera. Egun horretan torlojuaren presioaren lehen froga burutu zen eta segurtatu dezaket lehen bi bueltak eman zitzaizkionean, egurraren karraska entzuten hasi zenean... korrikan ihes egiteko modukoa izan zela!!!! Sinestezina zen duela 500 urte eraikitako neurri horietako makina bat toki berean eta ia pieza berdinekin entzuten egotea.



Egitura berriro muntatzen